



EUSKAL IZEN-ABIZENAK EUSKARAZ

Oraindik ere, asko eta asko dira erregistroan euren izen-abizenak gaztelaniaz jarrita dituzten elgoibartarrak: Aguirre, Echaniz, Gurruchaga, Zulaica, Cristina, Antonio, Victoria eta beste hainbat. Ondorioz, izen eta abizen horiek agiri ofizialetan ere gaztelaniaz idatzita agertzen dira.

Urte batzuetatik hona, izen-abizen horiek euskaraz jartzeko tramiteak dezente erraztu dira, ondorengo da jarraitu beharreko **prozedura**:

- Izena edo abizena euskaraz nola idatzi behar duzun jakiteko, **Euskaltzaindiaren "Euskal izendegia eta Euskal deituren izendegia" kontsultatu**. Horretarako Euskara Zerbitzura edo Bake Epaitegira joan zaitezke.
- **Bake Epaitegira joan** eta esan izena edota abizena euskaraz jarri nahi duzula.
- **Agiri hauek eraman:**
 - Nortasun-agiriaren fotokopia (adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu)
 - Jaiotze agiri literala (Bake Epaitegian bertan egingo dizute, momentuan).
 - Errola-agiria (Udalean egingo dizute, adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu).
 - Familia-liburuaren fotokopia (ezkondata bazaude, edota seme-alaben bat baduzu).
 - Seme-alaben nortasun-agiriaren fotokopia (16 urtetik gorako seme-alabak badituzu).

Euskal izen-abizenak euskaraz!

Arteche ➔ *Artetxe*

Carmen ➔ *Karmele*

Aguirre ➔ *Agirre*

Coro ➔ *Koro*

Euskal izen-abizenak euskaraz jartzea inoiz baino errazago!

¡Más facilidades que nunca
para escribir correctamente
los nombres y apellidos
vascos en euskera!

Zer behar da izen-abizenak euskaraz jartzeko?

¿Qué documentación se necesita para inscribir los nombres y apellidos en euskera?

NANaren fotokopia.

Fotocopia del DNI

Erroldatze ziurtagiria; zure udaleko idazkaritzan emango dizute.

Certificado de empadronamiento; te lo facilitarán en la secretaría de tu ayuntamiento.

Hitzez-hitzeko jaiotze agiria; inskribatuta zauden erregistroan emango dizute.

Certificado literal de nacimiento; te lo facilitarán en el registro donde estás inscrito/a.

18 urte baino gutxiago baldin badituzu, zure gurasoek egin beharko dute eskabidea.

Si eres menor de edad, la solicitud deberá ser realizada por tus padres.

Tramiteak inoiz baino errazago

Más facilidades que nunca para realizar los trámites

Zure izen-abizenak erregistroan gaztelaniaz idatzita badaude,

Si en el registro tu nombre y tus apellidos están en castellano,

Agiri ofizialetan ere gaztelaniaz idatzita agertzen badira,

si en los documentos oficiales también aparecen escritos en castellano,

eta euskaraz jarri nahi badituzu,

y los quieres escribir correctamente en euskera,

oraintxe duzu hori erraz-erraz egiteko aukera, zure herriko erregistroan.

ahora tienes la ocasión de hacerlo con toda facilidad, en el registro de tu localidad.

Non egin behar dut
tramite hori?

¿Dónde hay que dirigirse
para realizar el trámite?

Erroldatuta zauden
herriko erregistro edo
bake epaitegian

En el registro o
juzgado de paz de la
localidad donde estás
empadronado/a.



ELGOIBARKO UDALA
EUSKARA SAILA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA